

II. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

II. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko xedez Andoingo Udalak izendatutako Epaimahaiak, Carlos Sanz Díez de Uré, Andoingo Alkatea eta mahaiburua dena, Jesus Etxezarraga Zuluaga, Elixabete Garmendia Lasa, Josserra Garzia Garmendia, Josemari Otermin Urtizbera eta idazkari lanetan eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe jardun duen Jon Unanue López-ek osatu duten Epaimahaiak alegia, honako azken erabaki hau ezagutzera ematea akordatu du:

1.- Lehenengoz eta behin Epaimahaiak jakitera ematen du, "herrietako aldizkariak" atalean hirurogeitabat idazlan, "baloraziozko kazetaritza" atalean hamairu artikulua eta "erreportaia" izeneko atalean hogeitazazpi lan aurkeztu direla. "Sekzioa" izeneko atalean, berriz, hamasei aldizkari eta egunkarietako ehun eta hirurogeitamasei sekzioen azterketa egin da aurtengo bigarren sari honetan.


2.- Iazko lehen "Rikardo Arregi" Kazetaritza Sariaren Azken Erabakian Epaimahai beronek, euskara kazetaritza munduan gihartzen ari den presentziaz hitzegin zuen, eta aipatu ere aipatu zuen presentzia horri, lehendik ere neurri batetan ezaguna zaion kazetaritzaren alorrean normaltzen dihoan heinean, eusten dioten gihar guztiak zaildutzeko oraindik ere bide luze eta neketua urratu eta ibili beharra. Adierazpen horrek, geroztik joan zaigun urtebete honetan euskarazko kazetaritza idatziaren baitarako itxuratu eta gorpuztuz joan diren hainbat ekimen bitarte, badu, orain inoiz baino gehiago, gaurkotasun


sun bizi-bizirik.

3.- Euskaldun askoren aspaldidaniko gogobizia da, eta ez da ba, beraz, gaurkoa, gizarte honen eguneroko taupadaren berri euskara hutsezko komunikabide idatzi baten bidez izatea ere. Euskarazko egunerokorik kaleratzea erronka itzela aitortua ohi da gure hizkuntzarentzat, eta gogoan izan dugu beti zer onik atera lezakeen euskarak eta zer euskaldunok horri aurre egin eta bidea ondu ezkerro, eta zer txarrik aurre egin arren, azkenean, etsi beharrean ba-geunde. Izan bedi ongiatorria euskaldunei gizarte honen eguneroko taupadaren berri emanaz euskal prentsa idatziaren onerako gihar litekeen asmo eta ekimenik. Izan bedi ongiatorria, baldin eta kazetaritza homologatu eta normalduaren mundu uneoro idatzi horretara egin beharreko bidean barrena izan izango dituen traba, muga eta ezintasunak gaindituz, arratsero mamituko denak erderazko kazetaritza idatzien behar eta morrontza ezinbestekoan utziko ez bagaitu berriz ere. Urrats berritu eta sendoa da euskarazko egunkaria kaleratzea, baina urrats sendoak alperrikakoak izan ohi dira bideari ekinahalari bezain tinko eutsi ezin zaionean; beraz, ziurrenera oztopo nabarmenik izan dezakeen proiekturik hobe bide lokaztutan barrena ez abiaraztea.

4.- Bitez ongiatorriak, bidenabar, aurtengo "Rikardo Arregi" Kazetaritza Sarira aurkeztutako lan guztiak. Andoaingo Udalak "kazetaritza prestu eta modernoa" bultzatu beharraz hitzegin ohi du sari honen deialdia egiterakoan, ezinbestekotzat jotzen bait du berori euskararen erabateko normalkuntzarako. Azken adierazpen honen ildotik esan dezagun, bada, aurtengo aztertutako lanak, orohar, Epaimahaiak maila onekoak erizteaz gain, etorkizuneko euskal kazetaritzak ezinbesteko dukeen prestutasun eta modernotasun horren eragiletzat ere har litezkeela.

Saritutako lanak, berriz, inolako ezpairik gabe, oso kalitate maila onekoak dira. Diogunaren lekuko gisa adierazi besterik ez, saritarako proposamen ugari mahairatu ez ezik, horien arteko azken hautapena egiterakoan ez dela epaimahaikideontzat erraza izan aukera egitea, eta proposatutakoen gaineko azterketa eta aurrerago azalduko diren erizpideen arabera eztabaida sakonaren ondorioz erabaki direla, azkenik, gaur banatzera goazen sariak. Horrenbestez, saritutako lanak meritu guztien jabe dira, baina, bada, ordea, saririk ez jasoz aipatu gabe geratuko den arren meritu gardenik aitortua duen hainbat idazlan.

 5.- Bestetik, lau ataletako sariak erabakitzerakoan, huts-hutsik idazlanen eta sekzioen kazetal balioa hartu da kontuan, beste edonolako kontsiderazioaren gainera eta aurrerago aipatzen den beste zenbait erizpideren kalterik gabe. Beste hitzetan esanda, prentsa normalduan edo, agian hobeto esanda, euskarazko kazetaritza normalduan inolako homologazio arazorik gabe leku propioa izango luketenak saritu dira.

 6.- Bereziki aipagarri da "herrietako aldizkariak" atalean, lanen kalitate eta kopuruari dagokienez izandako gorakada nabarmena. Hori ordea, bada epaimahaikideoi kezkarik sortu digun aspektu bat, gogo onez herrietako idazle eta kazetarien erizmenara jarri nahi genukeena: hainbat herrietako aldizkaritako lanak bertako euskalkiaren formetaz idatzi ohi dira, jakina bait da herrietako iraukurleagoaren hizkuntz ezaugarrietatik egoki baino egokiagoa litekeela hala egitea. Hori ordea, gure iritzi apalean, aipatu euskalki formen erabilera gehiegia izan liteke, eta gehiegia, hain zuzen ere, kaltegarri gerta dakiokelako euskarazko kazetaritzak helburu duen normaltasun eta homogenotasunari, eta kaltegarri, gainera, sari honek sustatu asmo duen kazetaritza prestu eta modernoaren aurrerabiderako. Beraz, "herrietako aldizkariak" bertako hizkeraren ezaugarri eta ñabardurez jaztearen aldeko gara, baina, neurri egokian,

eta beti ere horiei hizkuntz normalizatuaren homogenotasuna emanaz.

7.- Honako hau da, guzti hori kontutan hartuta sariei dagokienez Epaimahaiak ahobatez bere egiten duen erabakia:

7.1. "Herrietako aldizkariak" ataleko saria. 250.000 pezetaz hornitutakoa. Aipatu erizpidez gain, atal honetako saria ematerakoan erabakiorra izan da egileak lanerako aukeratutako gaia landu eta mamitzerakoan eskaini dion kazetel tratamendu sakon eta hurbila, eta, bidebatez, lan idatziaren estilo zaindu eta begiratua. Horrela bada, garrantzi haundia eman zaio saritutako idazlanari darion naturaltasunari. Herrietako aldizkari batetan ezezik hedapen zabalekoetan ere argitara ahal izango litzatekeen idazlana da, bestetik, eta hori Epaimahaiak kontutan hartu ez badu ere, bada hemen konstaraztekoa.

Saritutako idazlana: "**Egun bat Elenaren bizitzan**", "**Arrasate Press**" aste-karian 1.989ko azaroaren 3ko 39. zenbakian argitaratua.

Autorea: **Jon Andueza Altuna**.

7.2. "Sekzioa" ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Kasu honetan, saritu beharrekoa "mailarik altuena lortu eta gorde duen sekzioa" izan behar dela zioten, hitzez, Andoaingo Udalak ezarritako oinarriek. Beraz, sari hau erabakitzerakoan, mementu jakin batetan lortutako maila ona ezezik, ontasun horren iraunkortasuna ere kontutan izan du Epaimahaiak. Horrela, bada, etorkizuneko kazetaritza normalduan ezinbestekoa baino kalitatezko lanen bi-degile izango litzatekeen sekzio bati eman zaio saria.

Saritutako sekzioa: "**Betaurrekorik gabe**", "**Argia**" astekarian argitaratzen dena.

Sekzioaren idazleak: **Pello Zubiria, Nerea Azurmendi, Martin Garitano eta Jose Felix Azurmendi jaun-andereak.**

7.3. "Baloraziozko kazetaritza" ataleko saria, 400.000 pezetaz hornituta-koa. Alor hauxe da Sari honi izena eman dion Rikardo Arregi zenak kazetaritza-
ren esparruan zabal eta jori jorratu zuen jeneroa. Lehenago aipatu erizpideez gain, oinarrietako laugarrenak atal honetako sariari buruz dioena ere oso kontutan izan du Epaimahaiak. Ikus dezagun aipatu oinarriak dioena, hitzezitz emanda: "fenomeno puntual eta konkretuen azalpenetatik areago doazen artikulua izan beharko dute hauek, nahiz eta datuak ematen dituzten eta, beste zenbaiten artean, gertakizun konkretuetatik abiatuz egindako idazlanak izan. Sari hau erabakitzerakoan, Epaimahaiak oso kontutan hartuko ditu egileak aztegaiari buruz egiten duen hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna eta zorroztasuna."

Saritutako artikulua: "**Nardagarria!**", "**Navarra Hoy**" egunkariaren "**Nafarroa gaur**" gehigarrian argitaratua 1.989ko urriaren 29an.

Autorea: **Aingeru Epalza jauna.**

7.4. "Erreportaia" ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Bigarren sari honetan deitutako atal berria dugu hau, eta iazko sarian hautemandako hutsunea betetzera datorrena, oso joria eta hedatua bait da euskal kazetaritza-
ren alorrean lantzen den erreportaia jeneroa. Oinarrietako bostgarrenean atal honi dagokionez adierazitakoaz gain, erabakiorra izan da saria ematerakoan,

saritutako lanak jorratzen duen gaiaren inguruko hainbat zirkunstantzi, egoera, iritzi eta hausnarketa bildu eta landuz, expektazio eta jakinmin haundiz jarraitzen zaion mundu batez autoreak eskaini duen ikuspegi zabala.

Saritutako erreportaia: "**Bertsolari txapelketa**", "**Egin**" egunkariak argitaratua 1.989ko abenduaren 17an.

Autorea: **Joxean Agirre jauna.**


Honaino, bada, II. "Rikardo Arregi" Kazetaritza Sariari dagokion azken erabakia, Epaimahaikide guztiok ontzan eman eta sinatzen duguna.

Andoain, 1.990eko uztailak 14.

Carlos Sanz Díez de Uré




Jesus Etxezarraga Zuluaga




Elixabete Garmendia Lasa



Josemari Otermin Urtizberea



Joserra Garzia Garmendia



Jon Unanue López